

Marian Barrio eta Jordi Romeo

Bi euskalakariren bizipenak

Marian Barrio hernaniarra (Gipuzkoa) da eta Jordi Romeo Tarragonatik (Katalunia) etorri da. Hizkuntza biografia desberdinak dituzte, baina elkarrekin ari dira euskara ikasten. AEK-k Donostian duen Irrintzi euskaltegiaren aurrean egin dugu zita.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkiak: Argia

MARIAN BARRIO hernaniarra Donostian bizi da. Hari galdetu genion lehenengo ea elkarriketatu genezakeen. Baietz, baina agian urduri jarriko zela, euskaraz ondo egiten ez duelako. Bere burua ezinean ikusiz gero gaztelaniaz egin zezakeela esan genion. Biak, Barrio eta Romeo, buru-belarri saiatu dira berriketan euskaraz, nahiz eta beharrezko hitzak eta aditzak mingainera kostata etorri. Gaztelaniaz esaldi solteren bat baino ez.

Marian Barrio duela bi ikasturte hasi zen euskara ikasten. Berrikastan, esan beharko genuke. Euskara baino ez zekiela, 5 urterekin, mojen eskolara hasi zela gogoan du: “Ez zekiten euskaraz eta oso-oso gaizki pasa nuen. ‘Zer ari da esaten?’ galdetzen nion nire buruari, ez bainien ezer ulertzen. Amorratioaren amorratioz ostikada ere eman nion mojarri. Eskolako ate handia itxi eta ni han bakarrik geratu nintzen”. Etxean ere ez zuen euskara mantentzerik izan. Euskaraz egiten zuten aiton-amonak galdu zituen, aita kanpokoia izanda ez zekien euskaraz eta amak egiteari utzi zion. 5 urtera arte ez zekien gaztelania eta “kon-turatzetarako gaztelaniaz baino ez nuen egiten”.

Haurra zela euskarak mihitik ihes egin zion arren, hizkuntzarekiko harreman estua izan du beti Barriok. Senarra jubilatutako irakaslea izan da eta bere garaian euskara ikasi zuen. Seme-alabak ikasto-



laz, ikasturte hasieran, ezagutu zuten elkar Jordi Romeok eta Marian Barriok Irrintzi euskaltegian. Helburu garbia dute: euskara ikastea eta erabiltzea.

Korrikarako prest



Ikasturte berezia da aurtengoa Marian Barrio eta Jordi Romeoren-tzat. Korrika 17 bete-betean harrapatu dute. Lehendik ere ezagutzen dute Korrika eta aurten ere lasterkaldia egiteko intentzioz dira. Barrio Intxaurrondoko elkarte bateko kideekin behin baino gehiagotan egon da petoa jantzi eta bide ondoan Korrika animatzen. Noski, ondoren berak ere parte hartu du. Romeok duela bost urte ezagutu zuen Korrika eta parte hartu zuen. “Flipatu” egin zuen euskararen inguruan antolatutako ekitaldi hau ikusita. Giroa gustukoa du, integratuta sentitzen da. Biek zorionak luzatu dizkiote AEKri Korrika antolatzeagatik.



lara eraman zituzten eta orain 3 urteko biloba daukate; “ezin diot gaztelaniaz hitz egin”.

Jordi Romeo Tarragonakoa da eta duela bost urte etorri zen Euskal Herrira. Bi urte egin ondoren, Frantzian eta Ingalaterran ibili eta berriz hona itzuli da. Lehen aldiz etorri zenean urtebetez aritu zen euskara ikasten, eta orain, Marian Barriorekin batera, AEKren Irrintzi euskaltegia dabil. Lehenengo urtea HABEren Hitzez euskaltegia egin zuen. Orduan ez zuen ezagutzen AEK. Azken honekin topo egin duenean asko gustatu zaio bere filosofia eta horregatik erabaki du AEK euskara ikastea, bestelako kontzientzia eta idealak dituztela dio.

Zergatik ikasi euskara

Romeori kontzientziak esan omen dio: “Jordi, euskara ikasi behar duzu!”. Katalunian katalanez hitz egiten dut eta hemen lagunekin naizenean gaizki sentitzen naiz haiek euskaraz eta nik erdaraz egi-

ten badut, eta gero denok erdaraz”. Arrazoi pragmatikoak izan ditu Romeok euskara ikasteko, Donostian bizi arren Hernanin egiten du bizitza soziala eta ingurua euskalduna dauka. Bestelako arrazoi bat ere esan digu: “Nire leloa da Euskal Herrian euskaraz eta Katalunian katalanez. Frantzian frantsesez esan genezakeen bezalaxe”. Romeok ez du euskara behar lanerako, egunen batean euskara ondo ulertu eta hitz egitea da bere asmoa.

Barrio euskarak inguratua bizi izan da, baina berak hitz egin gabe. Bilobarekin eta askatzen hasi zenean hartu zuen erabakia: “Garaia da euskaltegia joateko!”. Uxua Larretxea du irakasle eta oso pozik dabil. Ez du ahaztu nahi iazko irakaslea: “Lehenengo esperientzia oso inportantea da eta iazko andereñoa, Itsaso, oso animosa eta kariñoa zen. Asko motibatu ninduen. AEK-ko esperientzia oso ona izan da eta da. Urtetarako nago hor”.

Euskaraz hitz egiten hasi gara...

eta zer moduz moldatu zarete? Romeoren ustez, kanpokoa hona etorri eta euskara ikasten hastea asko baloratzen dugu euskaldunok, eta berak ere hori igarri du. Duela bost urte, euskara ikasten hasi zenean maila baxua zeukan, baina jendeak hala esaten zion: “Zuk nirekin euskaraz egin behar duzu”. Aitortzen du hasieran kosta egiten zitzaiola, baina badaki ikasteko beste modurik ez dagoela, alegia, ulertzen saiatu eta hitz egin. Galdetu diogu ea ez zaion arraroa egin lehen gaztelaniaz egiten zuen jendearekin orain euskaraz egitea: “Ohitura aldatzea zaila da. Adibidez, okindegian orain euskaraz egitea... ‘Nola? Lehen gaztelaniaz egiten zenuen eta orain euskaraz?’ pentsatuko du okinak”. Dena dela, lagunekin euskaraz aritzen da orain: “Nik erdaraz egiten nuen eta haiek euskaraz. Niregatik aldatzen ziren erdarara eta horrek horrela ezin du izan, ezta? Nik aldatu behar dut”. Besteak beste,

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure!
artean!
euskaraz



BFA
DFB

Hernaniko Molotoff irratian ari-
tzen da Romeo eta bilerak euska-
raz izaten dira. Ulertzen ez due-
nean galdetu egiten du eta
azalpenak ematen dizkiote gaztela-
niaz. Gainerakoan, dena euskaraz.
Hori bai, ostiraletan egiten duen
irratsaioan gaztelaniaz aritzen da.
Aurkezpena euskaraz egiteko ara-
zorik ez du, baina edukiak euska-
raz egitea oraingoz behintzat ezi-
nezkoa zaio.

Euskaraz hala moduz dabilela
igarri eta gaztelaniaz egiten dionik
aurretik duen galdetu diogu. Pen-
tsatu egin behar izan du, baina
etorri zaio adibidea. Musika kon-
tuetan ibiltzen denez, Euskal
Herriko hainbat herritara heltzen
da eta jakin dutenean katalana dela
“barkatu” esan eta gaztelaniaz hasi
ohi zaio jendea. Berak irmo eran-
tzuten die, ezetz, gutxi gorabehera
ulertzen duela eta euskaraz egiteko
berari. Dagoeneko ezagutzen
duten herritara joango da aurtan
ere eta badaki orain euskaraz egin-
go diotela. Euskaratik gaztelania-

rako jauzi hori katalanarekin alde-
ratzen hasi da eta ez du antzekota-
sunik ikusten: “Hizkuntza alda-
tzearen kontua ez da gertatzen
Katalunian. Han katalanez egiten
duenak hala egiten du. Hemen
euskaraz hasi eta gero erdarara
pasatzen zarete. Ez dakit zergatik

**Marian Barriori haurra zela
euskarak mihitik ihes egin
zion arren,
hizkuntzarekiko harreman
estua izan du beti**

egiten duzuen hori, erruduntasun
sentsazioa daukazuen edo zer.
Edo uste duzue zaila dela guk eus-
kara ulertzea eta guretzat hobeto
delakoan erdaraz hasten zarete. Ez
da hobeto zuek guri erdaraz egi-
tea, horrela ez dugu ikasiko inoiz”.
Garbi dauka hizkuntza ikasteko
modua zein den. Berak euskara
ikasi ondoren, ikasten ari den bate-

kin aritu behar badu badaki zer
egingo duen: euskaraz aritu, aldian
behin gaztelania tartekatuz, baina
beti ere euskararen alde nabarmen
eginez.

Marian Barriok ere animoak
baino ez ditu ingurukoengan-
dik. Seme-alabak lehen lerroan
daude, eta nola ez, senarra ere bai.
Hark ederki daki zer den euskara
ikastea eta emaztea adoretzen saia-
tzen da. Senarrak behin eta berriz
esaten dio, nahiz eta euskaraz ondo
moldatu ez, dendara joandakoan
lehenengo hitza beti euskaraz egi-
teko. Hala egiten du Barriok eta eran-
tzuna ere hala bada, euskaraz jarrai-
tzen du. Etxean zaila zaio euskaraz
egitea, hizkuntza ohiturak zama
handia du. Agurrak bai, euskaraz,
eta esate baterako pasean lasai
dabiltzala “hau nola esaten da?”
esaka ibiltzen dira.

“Pixkanaka-pixkanaka” ikasten
segiko du Barriok. Romeorentzat
satisfazio handia da ahalegina egin
eta euskaraz aritzea, euskaraz bizi
nahi baitu. ■



**BARTOLO ETXEA
JATETXEA**

Fermín Calbetón, 38 · 20003 Donostia
☎ 943 420 279 · www.casabartoloetxea.com

**Janari
tradizionalean
espezializatua**

**Jatetxea
Taberna**

☎ 943 429 875
Fermín Calbetón, 3
20003 Donostia

**KORRIKA
17
ELKARRREKIN
ZABALDU!**

A FUEGO NEGRO
-ALDE ZAHARRA- DONOSTIA

JAN EBAN ENTZUN IRUSTI ETA IRUSTI

ogiaren egia
*Denda berritu dugu!
Zatoz eta bidaiatu
iraganeko okindegi
xarmant batera*

**Galparsoro
OKINDEGIA**
*Antzinako ogiaren
kabia bihurtu baitugu
denda zahar berria*

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074